

## BESTELAKO XEDAPENAK

### GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

## 4292

*AGINDUA, 2021eko apirilaren 26koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzen baita Fundación Benefico Docente Cruz Irasuegui Fundazioa izeneko fundazioaren estatutuetan egindako aldaketa.*

2021eko martxoaren 30ean eskabide bat sartu zen Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailean, Fundación Benefico Docente Cruz Irasuegui Fundazioaren estatutuen aldaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko. Fundazioaren patronatuak 2021eko martxoaren 25ean erabaki zuen aldaketa, eta eskritura publiko bihurtu zen Eibarren 2021eko martxoaren 25ean María Dolores García Aranaz notario andrearen aurrean (protokolo-zenbakia: 343). Eskabide-idazkiari espedienteko dokumentazioa erantsi zitzaion.

Dokumentazio horren bidez, fundazioaren estatutuetako 14. eta 16. artikulua aldatzen dira, fundazioko presidentea eta idazkaria izan daitezkeen pertsonen dagokienez. Aurrerantzean fundazioaren berezko patronatukideek bete ahal izango dituzte kargu horiek.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari dagokio estatutuak aldatzeko espediente hau agindu bidez ebaztea, hauekin bat etorritik: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesle-tzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 3.1.a) artikulua; Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari dagokio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien eginkizunak eta jardun-arloak zehazten dituen lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 7.1.n) artikulua, eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailearen egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 3.1 artikulua.

Espedienteari funtsezko irizitako datu eta dokumentu guztiak erantsi zaizkio, eta bereziki bete dira Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 37. eta 51.2 artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesle-tzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 42. artikuluan aurreikusitako baldintzak. Horrenbestez, estatutuen aldaketa bat dator aplikagarriak diren lege eta erregelamenduetan ezarritakoarekin.

Hori guztia kontuan hartuta, ha

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Fundación Benefico Docente Cruz Irasuegui Fundazioaren estatutuen aldaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzea, agindu honen datarekin, María Dolores García Aranaz notario andrearen aurrean 2021eko martxoaren 25ean egiletsitako eskritura publikoan aurreikusitako baldintzetan (protokolo-zenbakia: 343).

Estatutuen aldaketa honen arabera, fundazioaren berezko patronatukideek bete ahal izango dituzte fundazioaren presidenteari eta idazkariaren karguak.

Bigarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta interesdunei bidaltzea.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, ondorioz, beronen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez daiteke Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren aurrean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko apirilaren 26a.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,  
OLATZ GARAMENDI LANDA.